

MATERIALISMO HISTERIKO

Begiratu ondo



UXUE APAOLAZA LARREA

datzi nuen behin esnea gainezka nola, halaxe hurbiltzen ginela batzuk zutabeetako orrialde zurira; ezin barruan eutsi, ezin azaldu gabe utzi. Presaka idatziak dirudite, presaka irakurtzeko dirudite. Esan genuen bazirela gerorako utzi beharreko gaiak ere, mingarriegi izaki, forma eman ezinez. Zutabegile guztiok ikusten dugu geure burua noizean behin zerrenda zutabeak egiten, hainbeste horroreren artean aukeratu ezinik. Badira “ezin dut gehiago” zutabeak ere. Badaude “ezin dut gehiago” egunak ere, asteak ere.

Baina tantaka... Batek ekartzen dizu landare bat, kaktus txiki bat, badakielako ez duzula ureztatuko. Beste batek bidali dizu ondo baten argazkia, bere bailara kuttunean hartua. Kanta bat, kursia, behar bezain kursia beste batek. Bilera hasi baino lehen esku bat zureari eusten, burua altxatu, eta begirada bat, zu eusten. Ikasle baten mezua “eskerrik asko ematen diguzun konfiantzagatik”. Gutun bat eskutik eskura emana, papera borobil batean zimurtuta zakarretarako balitz bezala. Baina kutun bat da, poltsikotik hunkitzen duena. Bazkari bat bere balkoian, kuxinetan eseri eta Martini botila hustu. Joan lasai, egongo naiz ni umearekin. Zu eta haurra pasatzeko portaleko ateari eusten dion bizilaguna, eta irribarre egiten dizuna, “animo”. Akorde batzuk bere gitarran.

Badaude “ezin dut gehiago” egunak ere, asteak ere. Eta ahal izateko, leihotik begiratu eta edertasuna identifikatzen jakin behar da. Batzuetan zerua da, besteetan txokolatzeko turroia. Baina gehienetan, dezepzionatu gaituen giza espezieko kide baten keinu bat da. Eta edertasuna arnasteko gai naizenean, oso lista sentitzen naiz. Edertasuna da ikasgai garrantzitsuen. Begiratu ondo. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Migrazioa

Italiak 16 errefuxiatu deportatu ditu Albanian eraiki duen “harrera-zentro” batera, Meloniren Italiaren eta Albaniako Ramaren arteko akordioa medio. Giza Eskubideen defendatzaileek gogor kritikatu dute, baina EBko herrialdeek gauza bera egitea proposatu du Von der Leyenek.

Oroimen historikoa

Donostiako La Cumbre Jauregia biktimen aitortzarako, erreparaziorako eta dibulgaziorako gune bilakatzeko proposamena egin dute memoriaren inguruan dabiltzan hainbat taldek eta Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren senideek. Eraikina Donostiako Udalaren eskutan geratuko da.

Literatura

Falta ziren Euskadi Literatura sariak iragarri dituzte. Aiora Jakak irabazi du Euskarazko Literatura Itzulpena saria (*Independenzien eguzkiak*), Jon Urzelaik Saiakera Euskaraz atala (*Su festak*) eta Julia Otxoak Gaztelaniazko Literaturarena (*Bajo los astros de la repetición*).